



AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek LAU atal ditu: lehenengo biak erantzun bakarrekoak dira, eta beste biak bi azpiatalen artean hautatzeko aukera dute. Hona hemen puntuazioak:

- o 1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).
- o 2. atala. Harrera arte eszenikoetan (1,5 puntu).
- o 3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).
- o 4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

Atal bakoitzari erantzun behar diozu. Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).

Harrobia Antzokiak gorabidean dauden konpainiak hautatzeko deialdia egin du, eta Ibsen-en *Panpina* etxea obraren proposamen eszenikoa eskatu du. Zuk, deialdi horretara aurkezten den konpainia bateko kide zaren aldetik, Harrobia Antzokiko hautaketa-batzordeari honako atal hauek azaldu behar dizkiozu hautatua izateko:

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretan zer antzerki- eta arte-korrante dauden (0,5 puntu).
- Argumentua, obran ageri den gatazka nagusia eta jorratzen dituen gaien gaurkotasuna. (1 puntu).
- Zure kezka artistikoetan oinarrituta, zer rol hartuko zenuke zure gain konpainian? Zergatik? Zerrendatu zer funtzio edo zeregin beteko zenituzkeen (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak. Jarraian, obraren zati bat daukazu erreferentzia gisa erabil dezakezuna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

NORA: Zortzi urte daramagu ezkontuta. Ez al zara konturatzen gaur lehen aldia dela zuk eta nik, senar-emazteok, serio hitz egiten dugula?

HELMER: Zer esan nahi duzu?

NORA: Zortzi urte... gehiago oraindik! Elkar ezagutu genuenetik, ez dugu elkarriketa serio bat ere izan.

HELMER: Egin behar al zintudan, bada, nire kezken konfiantzako gordetzaile, jakinda zuk ezin zenidala lagundu konpontzen?

NORA: Ez naiz kezkez ari. Esaten ari naiz ez dugula inoiz serio hitz egin, ez garela inoiz saiatu elkarrekin iristen gauzen muinera.

[...]

NORA: Erabat bakarrik egon behar dut, neure buruari buruz eta inguruan dudanari buruz orientatzeko. Ezin naiz gelditu gehiago zurekin.

HELMER: Nora, Nora!

NORA: Oraintxe bertan alde egin nahi dut. Pentsatzen dut Cristinak utziko didala gaua pasatzen bere etxean...

HELMER: Erotu al zara?... Ez dizut utziko! Debekatu egiten dizut!...

NORA: Gertatua gertatuta, alferrik da orain zuk niri ezer debekatzea. Nirea den guztia eramango dut. Ez dut nahi ezer zugandik, ez orain eta ez inoiz ere.

HELMER: Zer erokeria da hori?

NORA: Bihar, nire etxera joango naiz... hau da, nire herrira. Hala, errazagoa izango zait lana aurkitzea.

HELMER: Itsu zaude gero, eskarmenturik gabeko umea!

NORA: Saiatuko naiz ni eskarmentua hartzen, Torvaldo.

HELMER: Zure etxea, zure senarra, zure seme-alabak abandonatzea!... Eta jendeak zer esango ez al duzu pentsatu?

NORA: Ezin ditut pentsatu xehetasun horiek. Gauza bakarra dakit: ezinbestekoa dela niretzat.

HELMER: O, gorrotagarria da! Betebehar sakratuenei horrela traizioa egitea!

NORA: Zeri esaten diozu zuk betebehar sakratuenak?

HELMER: Esan behar al zaizu? Ez al dira, bada, zure senarrekiko eta seme-alabekiko betebeharrak?

NORA: Baditut beste betebehar batzuk ez gutxiago sakratuak.



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

HELMER: Ez duzu holakorik. Zer betebeharrak dira horiek?

NORA: Neure buruarekiko betebeharrak.

HELMER: Beste ezeren aurretik, emaztea eta ama zara.

NORA: Dagoeneko ez dut horretan sinesten. Uste dut beste ezeren aurretik gizakia naizela, zu bezala... edo, behintzat, izaten saiatu behar dudala. Badakit gizon gehienek arrazoia emango dizutela, eta badagoela halako zerbait liburuetan idatzia. Baina orain ezin naiz kontentatu gizonek esaten dutenarekin eta liburuetan idatzia dagoenarekin. Neure kabuz pentsatu behar dut honetan guztian, eta ulertzen saiatu.

2. atala. Harrera arte eszenikoetan. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (1,5 puntu).

Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatu, agertzen diren termino teknikoak erabili (1,5 puntu).

“Artedramak ‘Miñan’ taularatu du, Ibrahima Balde migratzailearen benetako istorioa.” Artezblai, 2024.

<https://www.artezblai.com/artedrama-lleva-al-teatro-minan-la-historia-real-del-migrante-ibrahima-balde/>



Argazkia Ainhoa Resano: <https://www.kulturklik.euskadi.eus/noticia/2024/10/22/ander-lipus-director-de-minan-esperamos-que-nuestra-obra-de-teatro-transmita-a-la-gente-la-fuerza-que-tenia-el-libro-original-/webklik01-detnewpr/es/>



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

Anaia txikiaren bila Gineako bere herritik Europara joan zela urte batzuk igaro dira. Ibrahim Balde Irunera iritsi zenean, Amets Arzallus idazle eta bertsolaria ezagutu zuen. Minez, abenturaz eta biziraupenez betetako kontakizunak txundituta, Arzallusek paperean islatzea erabaki zuen, afrikar gazteak lehen pertsonan egindako ahozko narrazioaren musikaltasunari eutsiz. Miñan euskaraz argitaratu zen lehenengo, eta, ondoren, hizkuntza askotara itzuli dute. Kritika bikainak jaso ditu, eta Frantzisko aita santuak berak ere gomendatu du. Orain, Artedramak eszenara eramango du, jatorrizkoaren hizkuntza berean, euskaraz. [...].

“Timberlakek oso ondo ezagutzen ditu istorioa eta Amets bera. Egokitzapen bikaina egin duela uste dut, oso ondo eraman du oholtzara. Ibrahimaren istorioa lau aktoreren bidez kontatzen dugu. Sambou Diabyk egingo du Ibrahimaren papera, eta gainerakook istorioan agertzen doazen pertsonaia horiek guztiak hezurmamituko ditugu (aita, mekanikaria, torturatzailea, ama, anaia, soldadua, etab.). Erritmo nahiko bizi du, eta eszenak bata bestearen atzetik joango dira, istorio gogor hau kontatzeko”, azaldu du zuzendariak. Dramaturgiak, gaineratu du, funtsezko bi pieza ditu: “Alde batetik, Ibrahimaren narrazioa, Sambouren ahotan, ipuin bat balitz bezala kontatua. Berak bizi izandakoaren zuzeneko transmisioa egingo du. Bestetik, akzioa eta antzerki-jokoa izango dira”. Liburuaren sinpletasun magikoa azpimarratzen dute askok, eta Lipusek hala nahi du: “istorioa kontatua izatea eta hitzaren bidez jendearengana iristea. Muntaiak nahiko sinplea eta erraza da, buztinez egindako eraikuntza afrikarrak eta basamortuko hondarraren kolorea gogorarazten duten kaxez osatutako eszenografia batekin. Horien inguruan zenbait istorio kontatzen joango dira.

Ez da nire asmoa obra folklorizatzea, Ametsek liburuan egiten duena egitea baizik: gauzak kontatzea bere erara baina Ibrahimaren esentzia gordez”.

Artedrama, Arriaga Antzokia, 2024/10/24. JATORRIZKO TESTUA: Ibrahim Balde, Amets Arzallus. EGOKITZAPENA: Timberlake Wertenbaker. ZUZENDARITZA: Ander Lipus. AKTORE-ZUZENDARITZA: Manex Fuchs. INTERPRETEAK: Ander Lipus, Sambou Diaby, Eihara Irazusta, Mikel Kaye.

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).

Bi aukeren artean bat hautatu, eta erantzun:

- A) Ikasturtean zehar burututako esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenituzten edo nola konponduko



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako jantziteria eta karakterizazio-
alderdiak (2,5 puntu).

- B) Deskribatu ikasgelan pertsonaia baten ezaugarriak hartzeko eta sorkuntza
egiteko burutu duzun ahots-ariketa bat, eta arrazoitu nola aplikatu den
eszenan (2,5 puntu).

Koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia,
zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

A edo B aukeren artean bat hautatu, eta definitu agertzen diren 5 termino
teknikoetako bakoitza. Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Nahikoa
izango da gehienez bost lerro idaztea termino bakoitzeko.

- A) Maiteminduak (innamorati) (0,5
puntu).
Xaribariak (0,5 puntu).
Laugarren horma (0,5 puntu).
Eszena-zuzendaria (0,5 puntu).
Trajikomedia (0,5 puntu).

- B) Sinbolismoa (0,5 puntu).
Kamerinoa (0,5 puntu).
Colombina (0,5 puntu).
Urruneratzea (0,5 puntu).
Maskarada (0,5 puntu).

Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko dira, eta 0,5 puntu emango
zaio bakoitzari.